

ASTE SANTUA

JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA (B)

I. ERRAMUEN BEDEINKAPENA ETA PROZESIOA

Oharpena

Senide maiteok: Garizumako aldi honetan, bihotzak prestatzen aritu gara penitentziaz eta maitasun egintzez. Hurbil dugu Pazko jaia. Eliza guztiarekin batean bildu gara gaur, Jaunaren Pazko misterioari hasiera emateko. Misterio hori, Jesu Kristoren nekaldia eta piztuera dira. Misterio hori betetzeko sartu zen Jesus Jauna Jerusalemgo hiri santuan. Beraz, gu salbatzeko egin zuen sarrera horren oroipena ospa dezagun fedez eta maitasunez, eta jarrai diezaiogun eta lagundu gure Jaunari, Haren gurutzean bat eginda, Haren piztuera eta bizian ere bat egin dezagun.

Bedeinkapen-otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jaingo ahalguztidun betierekoa,
bedeinka itzazu + erramu adar hauek;
eta egizu, Kristo gure Erregeri
goraka eta kantari jarraitzen diogunok,
Beronen bidez betiko Jerusalem irits gaitezela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.
R/. Amen.

Jaunaren Jerusalemgo sarrerako ebanjelioa

Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik: 11, 1-10

Jesusek, Betfage eta Betania aldetik Jerusalem hurbiltzean, Oliamendi ondoan bere ikasleetako bi bidali zituen, esanez: «Zoazte aurreko auzo horretara, eta han sartu orduko, astakume bat aurkituko duzue lotuta, oraindaino gainean inor jarri ez zaiona. Askatu eta ekarzue. Eta norbaitek zer ari zareten esaten badizue, erantzun: "Jaunak behar du eta berehala itzuliko du hona"».

Joan ziren, beraz, eta astakumea ate ondoan lotuta aurkitu zuten, kanpotik bidean; eta askatu zuten. Han zeudenetako batzuek esan zieten: «Zer ari zarete astakumea askatzen?» Haiek, Jesusek esana erantzun zuten, eta utzi zieten eramaten.

Eraman zuten astakumea, eta bere soinekoak ezarri zizkieten; eta Jesus gainean eseri zen. Askok beren soingainekoak zabaldu zituzten bidean; beste batzuek, berriz, landetan ebakitako adarrak. Eta aurretik eta ondoren zihoazenek, honela zioten oihuka:

«Hosanna!

Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena!

Bedeinkatua, gure aita Dabidengandik datorren erreinua!

Hosanna Goigoikoari!»

Edota:

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik: 12, 12-16

Aldi hartan, jaietara etorritako gizatalde haundiak, Jesus Jerusalem zatorrela jakitean, palmadarrak hartuta bidera atera zitzaizkion, eta honela zioten oihuka:

«Hosanna!

Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena,

Israelgo erregea!»

Jesusek astotxo bat aurkitu zuen, eta gainean jarri zen, idatzirik dagoen bezala:

«Ez izan beldurrik, Siongo alaba:

Badatorkizu zeure erregea,

astakume baten gainean jarrita».

Ikasleak ez ziren orduan konturatu; baina Jesus goretsia izan zenean, orduan gogoratu zitzairen, idatzirik zegoena egin zutela Harekin.

II. EUKARISTIA

Mezako otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
gizon-emakume guztiei apaltasun bidea erakusteko,
gure Salbatzailea gizon egitea
eta gurutzean hiltzea nahi izan zenuen;
iguzu, arren,
Haren nekaldiko irakaspenak gogoan har ditzagula,
Harekin batera piztu gaitzen.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 50, 4-7

*Ez diet aurpegia saihestu irainei,
eta badakit ez naizela lotsagarri gertatuko.*

Isaias Profetaren liburutik

Ikasi baten mihia eman dit nire Jaunak,
hitz bizkorgarria eman diezaiedan nekatuei;
belarria esnatzen dit goizero,
ikasiek bezala entzun dezadan.
Jaunak belarria ireki dit,
eta nik ez diot gogorrik egin; ez dut atzera egin.
Bizkarra ipini diet, jotzen nindutenei;
masaila, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei.
Ez diet aurpegia saihestu irainei eta listuei.
Nire Jauna nuen laguntzaile;
horregatik ez nintzen lotsatu;
horregatik ipini nuen aurpegia, harri gogor bezala;
eta badakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

ERANTZUN SALMOA: Sal 21, 8-9. 17-18a. 19-20. 23-24

**R/. Ene Jainko, ene Jainko,
zergatik utzi nauzu eskutik?**

Ikusten nautenak honela ari zaizkit barreka,
ezpain-keinu eta buru-eraginka:
«Jaunagan du uste on, salba beza;
maite badu, onik atera beza.» R/.

Zakur-taldeak nauka inguraturik,
gaizkile-sailak erdian harturik.
Esku-oinak zulatu dizkidate,
hezur guztiak bat-bana ditzaket. R/.

Nire jantziak berentzat banatzen dituzte,
nire soinekoa txotx egiten dute.
Zu, ordea, Jauna, ez egon urrun,
Zu, nire indar, zatozkit azkar nire lagun. R/.

Neure senideei zure izena diet iragarriko,
batzarraren erdian zaitut goretsiko:
«Goretsazue Jauna, beldur diozuenok,
Jakoben seme-alaba guztiok, ospa ezazue,
izan Haren beldur, Israelen seme-alaba guztiok.» R/.

II. IRAKURGAIA: Flp 2, 6-11

*Apaldu egin zuen bere burua,
horregatik Jainkoak goratu egin zuen.*

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari;
bestela baizik, bereaz hustu egin zen,
morroi izaera hartuz,
eta beste edozein bezala azalduz.
Eta gizon bezala agerturik,
apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion,
Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezen,
zeruan, lurrean eta lurpean,
eta mihi guztiak aitor dezaten:
Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

EBANJELIOA: Mk 14, 1-15, 47

Ebanjelio aurreko txatala: Ik. Flp 2, 8-9

V/. Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion.

Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Markosen liburutik.

Jesus azpikeriaz nola bahituko eta hilko zebiltzan.

[C Bi egun barru, Pazkoa eta Ogi Hilen egunak ziren. Eta apaiz nagusi eta idazlariak, Jesus azpikeriaz nola bahituko eta hilko zebiltzan. Honela zioten:
S «Ez, gero, jaiegunean, herrian nahaspilarik izan ez dadin».

Aurrez gantzutu du nire gorputza hilobirako.

C Jesus Betanian, Simon lepradunaren etxean mahaian jarrita zegoela, emakume bat etorri zen, ontzi eder batean nardo jatorrezko gantzu usaigozodun baliotsua zekarrela. Ontzia hautsi eta buru gainera isuri zion. Han ziren batzuek, haserretuta, honela zioten beren barruan:
S «Zertarako galdu da alferrik horrelako usaigozoduna? Hirurehun denarioz goitik sal zitekeen, eta behartsuei eman».

C Eta haserreka ari zitzaizkion emakumeari. Baina Jesusek esan zien:
+ «Utziozue; zergatik ez duzue bakean uzten? Ondo egina dago Nirekin egin duena; behartsuak, izan ere, beti dituzue zeuekin, eta nahi duzuenean on egin diezaiekezue; Ni, ordea, ez nauzue beti izango. Honek ahal zuena egin du; aurrez gantzutu du nire gorputza hilobirako. Egia esan: berri ona hotsegiten den munduko toki guztietan gogoratuko dute honek egin duena ere, beraren gogoangarri».

Judas Iskarioteri dirua agindu zioten.

C Judas Iskariote, Hamabietako bat, apaiz nagusiengana joan zen, Jesus haien eskuetara eman nahiz. Poztu ziren entzutean, eta dirua agindu zioten. Judas, ordutik, Jesus haiei eskuetara emateko egokiera bila zebilen.

*Non da nire afaltokia,
neure ikasleekin Pazkoa jan dezadan?*

Ogi Hilen lehenbiziko egunean, Pazko bildotsa opari eskaintzen zenekoan, ikasleek honela esan zioten Jesusi:

S «Gu nora joatea nahi duzu, Pazko afaria egiteko gauzak prestatzera?»

C Jesusek bere ikasleetako bi bidali zituen, esanez:

+ «Zoazte hirira; gizon bat aterako zaizue bidera, ur suila daramala; jarraiozue; eta sartzen den tokian, esaiozue etxe nagusiari: "Hau dio Maisuak: non da nire afaltokia, neure ikasleekin Pazkoa jan dezadan?" Hark, etxe goian, gela haundi bat erakutsiko dizue jarlekuekin. Presta iezaguzue hantxe afaria».

C Joan ziren ikasleak; eta, hirira iritsi zirenean, Jesusek esan bezala aurkitu zuten dena; eta Pazko afaria prestatu zuten.

Zuetako batek, Nirekin jaten ari den batek,

Ilunabarrean, Jesus Hamabiekin joan zen. Eta mahaian jaten ari zirela, esan zien:
+ «Benetan diotsuet: zuetako batek, Nirekin jaten ari den batek, saldu egingo nau».

C Haiek, atsekabeturik, galdezka hasi zitzaizkion banaka:

S «Nik ote?»

C Jesusek esan zien:

+ «Hamabietako batek, Nirekin aspil berean ogia bustitzen duen batek. Gizonaren Semea badoa, Hartaz idatzirik dagoen bezala; baina zoritxarrekoa, Gizonaren Semea saltzen duena! Gizon horrek hobe zukeen jaio ez balitz».

*Hau nire gorputza da.
Hau nire odola da, itunaren odola.*

C Jaten ari zirela, Jesusek ogia hartu, eta bedeinkapen otoitza eginez, zatitu zuen eta eman zien, esanez:

+ «Hartzazue: hau nire gorputza da».

C Gero, edalontzia hartu eta esker otoitza eginez, eman zien, eta guztiek edan zuten bertatik. Eta esan zien:

+ «Hau nire odola da, itunaren odola, guztientzat isurtzen dena. Hara Nik egia esan: Ez dut gehiago ardorik edango, ardo berria Jainkoaren erreinuan edango dudana egunera arte».

*Oilarrak bi aldiz jo baino lehen,
zuk hiru aldiz ukatuko nauzu.*

C Abestu zituzten salmoak, eta Oliamendira atera ziren. Jesusek esan zien:

+ «Guztiok eroriko zarete; idatzirik baitago: "Joko dut artzaina, eta sakabanatuko dira ardiak". Baina Ni piztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara».

C Orduan Pedrok esan zion:

S «Guztiak erortzen badira ere, ni ez».

C Eta Jesusek:

+ «Egiaz esaten dizut: gaur, gau honetan bertan, oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu».

C Pedrok oraindik:

S «Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut ukatuko».

C Gauza bera esaten zuten guztiek.

Ikara eta larria sentitzen hasi zen.

Getsemani deritzan baratzera iritsi ziren, eta Jesusek honela esan zien bere ikasleei:

+ «Zaudete hemen, Ni otoitzera noan bitartean».

C Hartu zituen Berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta ikara eta larria sentitzen hasi zen. Eta esan zien:

+ «Nahigabez hiltzeko zorian nago; geldi zaitezte hemen, eta egon erne».

C Aurreraxeago joan eta lurreraino ahuspeztu zen eta, ahal bazen, ordu hura igaro zekiola eskatzen zuen, esanez:

+ «Abba! Aita! Zuk guztia dezakezu; ken Niregandik kaliza hau. Baina ez bedi egin Nik nahi dudana; Zuk nahi duzuna baizik».

C Etorri zen eta lo aurkitu zituen, eta honela esan zion Pedrori:

+ «Simon, lo al zaude? Ezin egon erne ordubete? Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldian eror ez zaitezten; gogo bizkorra da; haragia, ordea, makala».

C Berriro joan eta otoitz egin zuen, hitz berak esanez. Eta etorri zenean, lo aurkitu zituen, begiak logale baitzituzten; eta ez zekiten zer erantzun. Hirugarren aldiz etorrita, esan zien:
+ «Orain egizue lo eta hartu atsedeen. Nahikoa da; iritsi da ordua! Gizonaren Semea bekatarien eskuetan utzia izango da. Jaiki zaitezte, goazen! Hurbil da Ni saltzen nauena».

Lotu ezazue eta eraman kontuz.

C Oraindik hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hamabietako bat, eta harekin jendetza haundia, ezpatak eta makilak eskuetan zituztela, apaiz nagusiek, idazlariek eta zaharrek bidalita. Saltzaileak ezaupide hau emana zien:

S «Nik musu ematen diodana, hura da; lotu ezazue eta eraman kontuz».

C Iritsi bezain laster, Harengana hurbildurik, esan zion:

S «Maisu!»

C Eta musu eman zion. Haiek, berriz, eskuak erantsi zizkieten, eta lotu egin zuten. Baina han zegoen batek ezpata atera eta apaiz nagusiaren morroia jo zuen, eta belarria moztu zion.

Jesusek esan zien:

+ «Lapur batengana bezala etorri zarete, ezpata eta makilekin, Ni harrapatzera. Egunero zuen artean ninduzuen jauretxean

erakusten, eta ez ninduzuen bahitu. Baina bete bedi Liburu Santuak dioena».

C Orduan, Hura bakarrik utzita, denek ihes egin zuten. Gazte bat atzetik zihoakion, izara bat beste jantzirik ez zuela, eta eskua erantsi zioten; baina hark, izara utzi eta larrugorrian ihes egin zuen.

Zu al zara Mesias, Jaungoiko bedeinkatuaren Semea?

Jesus apaiz nagusiaren etxera eraman zuten; eta han bildu ziren apaiz nagusiak, herriko zaharrak eta idazlariak. Pedrok, urrutitik, apaiz nagusiaren jauregi barruraino jarraitu zion; eta han eseri zen, morroiekin batean, su ondoan berotzen.

Apaiz nagusiak eta Batzarre osoa Jesusen kontra gezurrezko testigantza baten bila zebiltzan, Hura heriotzara eramateko; baina ez zuten aurkitzen. Askok ziren Haren aurka gezurrezko testigantza egiten zutenak; baina aitormenak ez zetozen bat. Batzuek, jaikita, Haren kontra aitormen hau egin zuten:

S «Guk entzun diogu Honi esaten: "Nik xehatuko dut giza eskuz egindako jauretxe hau, eta hiru egun barru eraikiko, giza eskuz egina ez den beste bat"».

C Baina honetan ere ez zetozen bat haien testigantzak. Orduan apaiz nagusia erdi-erdian zutik jarri zen eta galdera hau egin zion Jesusi:

S «Ez al duzu ezer erantzun behar? Zer da, horiek Zuretzat dioten hori?»

C Bera isilik zegoen eta ez zuen ezer erantzuten. Berriro apaiz nagusiak galdetu zion:

S «Zu al zara Mesias, Jaungoiko bedeinkatuaren Semea?»

C Jesusek erantzun:

+ «Neu naiz; eta ikusiko duzue Gizonaren Semea Ahalguztidunaren eskuin aldean jartzen, eta zeruko hodei artean etortzen».

C Orduan apaiz nagusiak urratu zituen soinekoak, esanez:

S «Ba al dugu beste testiguren beharrik? Entzun duzue biraoa. Zer deritzazue?»

C Guztiek, heriotza merezi zuela erabaki zuten. Eta batzuk listua botatzen hasi zitzaizkion eta, aurpegia estaliz, masailekoak ematen zizkieten, esanez:

S «Egizak profetarena».

C Zaintzaileek ere masailekoka hartu zuten.

Ez dut ezagutzen, zuek diozuen gizon hori!

Pedro behean atarian zegoela, apaiz nagusiaren neskame bat etorri zen eta, Pedro berotzen ikusirik, begira-begira jarri zitzaion eta esan zion:

S «Zu ere Nazareteko Jesusekin ibiltzen zinen».

C Eta hark ukatu egin zuen:

S «Ez dakit eta ez dut ulertzen ere zer diozun!»

C Etxe aurrera, kanpora, atera zen; eta oilarrak jo zuen. Neskameak, ikusi zuenean, honela esan zion, berriro ere, han zeudenei:

S «Hau haietakoa da».

C Baina hark ukatu egin zuen berriz ere. Handik berehala, han zeudenek ere honela zioten:

S «Inondik ere, zu horietakoa zara; galilearra zara, gainera».

C Baina hura madarikatzen eta zin egiten hasi zen:

S «Ez dut ezagutzen, zuek diozuen gizon hori!»

C Berehala, oilarrak bigarren aldiz jo zuen. Orduan Pedrori Jesusek esana gogoratu zitzaion: «Oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu». Eta kanpora aterata, negarrari eman zion.]

Nahi al duzue, judutarren erregea askatzea?

Eguna argitu zuenean, apaiz nagusiek, herriko zaharrek, idazlariek eta Batzarre osoak antolatu zuten beren asmoa eta, lotuta harturik, Pilatoren esku utzi zuten. Pilatok galdetu zion:

S «Zu judutarren errege al zara?»

C Eta Jesusek erantzun:

+ «Zerorrek diozu».

C Apaiz nagusiak salatu eta salatu ari ziren. Pilatok berriro:

S «Ez al duzu ezer erantzun behar? Begira zenbat salakuntza egiten duten zuretzat».

C Baina ez zuen ezer erantzuten, eta Pilato harrituta zegoen.

Preso bat askatu ohi zien Festaburuan, herriak eskatzen zuena. Bazegoen espetxean Barrabas izeneko bat, matxinadan heriotza bat egin zuten gaizkileekin batean. Igo zen jendea, eta ohiturazko barkamena emateko eskatzen hasi ziren. Pilatok erantzun zion: S «Nahi al duzue judutarren erregea askatzea?»

C Bai baitzekien apaiz nagusiek bekaitzez ekarri ziotela. Baina apaiz nagusiek herria berotu zuten, Barrabas aska zezala eskatzeko. Pilatok berriro:

S «Eta zer egin behar dut, judutarren errege esaten diozuen Horrekin?»

C Haiek berriz ere deiadarka:

S «Josi gurutzean!»

C Baina Pilatok:

S «Zer oker egin du, bada?»

C Eta haiek deiadar haundiagoz:

S «Josi gurutzean!»

C Pilatok, orduan, herriari atsegin eman nahiz, Barrabas askatu zion; eta Jesus, zigortu ondoren, haien esku utzi zuen gurutzean josteko.

Arantzez egindako koroa ipini zioten.

Gudariak jauregi barrura —auzitegira— eraman zuten; eta han bildu zuten gudari talde osoa; jantzi zuten estalki gorriz, eta arantzez egindako koroa ipini zioten. Eta agurka hasi zitzaizkion:

S «Agur, judutarren errege!»

C Eta kainaberaz buruan jo eta listua botatzen zioten; eta belaunikaturik, gurtu egiten zuten. Isekak bukatutakoan, kendu zioten estalki gorria, bere soinekoak jantzi, eta gurutzean jostera eraman zuten.

Golgota deritzan lekura eraman zuten Jesus.

Handik barrena zihoan —sorotik etxe aldera— Simon izeneko zirenear bat, Alejandro eta Ruforen aita; eta gurutzea eramatera behartu zuten. Golgota —hau da: Buruhezurtegi— deritzan lekura eraman zuten Jesus.

Gaizkileen pareko egin zuten.

Mirraz nahastutako ardoa eman zioten edateko; baina Berak ez zuen hartu. Gurutzean josi zuten, eta txotx egin zuten, Haren jantziak zer norentzat. Goizerdia zen gurutzean josi zutenean; Haren hoben agerian, honela zegoen idatzita: JUDUTARREN ERREGEA. Harekin batean bi gaizkile josi zituzten gurutzean: bata eskuinetan eta bestea ezkerretan. Horrela bete zen, Liburu Santuak dioena: «Gaizkileen pareko egin zuten».

*Besteak, bai, salbatu Horrek;
eta bere burua ezin salbatu!*

Handik igarotzen zirenek iseka egiten zioten, buruari eraginez eta esanez:

S «Hi!, jauretxea xehatu eta hiru egun barru berriro eraikitzen huen Horrek, salbazak heure burua! Jaitsi hadi gurutzetik!»

C Apaiz nagusiek ere, idazlariekin batean, burla egiten zioten, esanez:

S «Besteak, bai, salbatu Horrek; eta bere burua ezin salbatu! Mesias eta Israelgo errege, noski! Jaitsi dadila orain gurutzetik, ikusita sinets dezagun».

C Harekin batean gurutzean zeudenek ere, iseka egiten zioten.

*Jesusek, deiadar haundi bat eginez,
azken arnasa eman zuen.*

Eguerdian lurralde hura guztia ilunbetan gelditu zen, arratsalde erdira arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu haundiz honela esan zuen:

+ «Eloi, Eloi, lema sabaktani»

C —hau da:

+ «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»—.

C Han zeuden batzuek, hau entzutean, honela zioten:

S «Eliasi deika ari da».

C Eta batek lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kainabera-muturrean jarrita, edateko ematen zion, esanez:

S «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera».

C Eta Jesusek, deiadar haundi bat eginez, azken arnasa eman zuen.

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egiten da.

Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Haren aurrez aurre zegoen gudari ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikustean, esan zuen:

S «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen».

[C Bazeuden han, urrutitik begira, emakume batzuk ere; haien artean, Maria Magdalena, Santiago gaztearen eta Joseren ama Maria, eta Salome —Jesus Gali]jean zebilenean, laguntzaile eta zerbitzari izaten zituenak—, eta beste emakume asko, Harekin batean Jerusalem igo zirenak.

eta harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini zuen.

Ilunabarrean, Prestaera Eguna, larunbat bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose —Batzarreko gizon argitsua, Jaungoikoaren erreinua itxaroten zegoena bera ere—, eta ausardiaz Pilatorengana joan zen, Jesusen gorpua eskatzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako; eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren erantzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat erosi eta, gurutzetik jaitsirik, izaran bildu zuen; harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil bat ezarri zuen. Maria Magdalena eta Joserena Maria begira zeuden non jartzen zuten.]

Oparigaien gainekoa

Jaingo Jauna,
zure Semearen nekaldiari esker
betorkigu laster zure barkamena;
eta ospakizun honetan gaurkotzen dugun
Jesu Kristoren opari bakar honen bidez,
emaguzu zeure errukia,
gure bekatuek merezi ez badute ere.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Errugabearen nekaldia errudunon alde

V/. Jauna zuekin.
R/. **Eta zure espirituarekin.**
V/. Gora bihotzak.
R/. **Jaunagan dauzkagu.**
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, bekatugabea izanik,
bekatariengatik onartu zuen nekaldia,
eta errugabea izan arren,
errudun bezala izan zen epaitua.
Bere heriotzaz garbitu ditu gure bekatuak,
eta bere piztueraz irabazi digu santu izatea.

Horregatik, guk ere, aingeru eta santu guztiekin batean,
goresten zaitugu, Jauna,
poz betean [esanez] kantari:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Zure misterio santuez indarberturik,
otoizka gaituzu, Jauna:
zure Semearen heriotzari esker,
itxaroten ditugu geure sinesmenak agintzen dizkigunak;
egizu, beraz, Haren piztueraz irits ditzagula.
Jesu Kristo.

PAZKO HIRURREN SANTUA JAUNAREN AFARIKO ARRATSALDEKO MEZA (B)

Otoitza

Jainko Jauna,
zure Seme bakarrak
bere burua heriotzara eman aurretik
betiko Itunaren opari berria utzi zion Elizari;
Haren maitasun agiri den
Afari santua ospatzera bildu gaituzu gaur hemen;
egizu, misterio haundi hau ospatzeak
maitasunez eta bizi berriz bete gaitzala.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ex 12, 1-8. 11-14

Pazko afariari buruzko aginduak.

Exodo liburutik

Egun haietan, Jaunak honela esan zien Moisesi eta Aaroni Ejipto aldean: «Hil hau izango duzue hilik haundiena; urtearen lehenengo hila izango duzue. Esaiozue Israel herri osoari: «Hil honen hamarrean, guztiok bildots bana hartuko duzue, familia bakoitzak eta etxe bakoitzak berea. Eta bildotsa jateko familikoak aski ez badira, deitu auzoari eta bildu behar adina lagun; bakoitzak bere zatia jango du, guztia bukatzeraino.

Bildotsa, akatsik gabea izango da, aharikoa, urtekoa, arkume, nahiz antxume. Bizirik edukiko duzue hilaren hamalau arte, eta israeldar guztiek ilunabarrean hilko dute. Odola hartu, eta igurtziko dituzue, jan duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua. Gau hartan, sutan errea jango duzue haragia, eta ogi legami gabea eta barazki garratzak.

Eta era honetan jango duzue: gerria lotuta, oinetakoak jantzita, makila eskuan; ahal duzuen lasterrenik jango duzue, Pazkoa baita, hau da: Jaunaren Igarotzea. Gau hartan Ni Ejiptoko lurraldetik igaroko naiz, eta Ejipto lurraldeko lehen ume guztiah hilko ditut, bai gizonetan, bai abereetan, eta Ejiptoko jainkoei berena emango diet. Hala Ni Jauna! Zaudeten etxeetan, odola izango da zuen ezaugarri. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz, eta ez da zuenean herio zigorrik izango, Nik Ejiptoko lurraldea jotzean.

Egun hau oroigarri izango duzue eta jai haundi egingo diozue Jaunari zuen belaunaldietan; betiko jai egun egingo duzue».

ERANTZUN SALMOA: Sal 115, 12-13. 15-16. 17-18

**R/. Esker onezko kalizak
Kristoren odolean elkartzen gaitu.**

Zer bihurtuko diot Jaunari,
eman dizkidan guztiengatik?
Salbamen-edontzia dut hartuko,
eta Jaunaren izena deituko. R/.

Jaunaren begietan balio haundikoa
Haren zintzoen herioa.
Zure morroi nauzu ni, Jauna,
zure morroi eta zure neskamearen umea,
askatu dituzu nire kateak. R/.

Eskainiko dizut gorets-oparia,
deituko dut, Jauna, zure izena.
Emango dizkiot Jaunari zin egindakoak,
herri guztia begira dagoela. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 11, 23-26

*Ogi honetatik jaten,
eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean,
Jaunaren heriotza adierazten duzue.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Jaunarengandik harturik daukat nik, neuk zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saltzekoa zen gauean, ogia hartu eta, esker otoitza eginda, zatitu zuela eta esan: «Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri».

Era berean, kalizarekin ere afal ondoan, hitz hauek esanez: «Kaliza hau itun berria da nire odoletan; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri». Beraz, ogi honetatik jaten, eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza adierazten duzue, Bera etorri arte.

EBANJELIOA: Jn 13, 1-15

Ebanjelio aurreko txatala: Ik. Jn 13, 34

V/. Agindu berri bat ematen dizuet —dio Jaunak—:
Maita ezazue elkar,
Nik maite izan zaituztedan bezala.

Azkeneraino maitatu zituen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Pazko jai aurrean, ikusi zuen Jesusek etorri zitzaiola mundu honetatik bere Aitarengana joateko ordua, eta munduan zeuden beretarrak maite izanik, azkeneraino maitatu zituen. Afaltzen ari ziren. Ordurako etsaiak buruan sartua zion Simon Iskarioteraren seme Judasi Jesusen saldukeria egitea. Jesusek jakinik Aitak gauza guztiak eskura eman zizkiola, Jaungoikoarengandik zetorrela eta Jaungoikoarengana zihoala, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapi bat harturik, bere gerrian lotu zuen; gero ontzi bat urez bete, eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaian, eta gerrian zeukan eskuzapiaz lehortzen.

Pedrorengana iritsi zenean, honek esan zion: «Jauna, Zuk niri oinak garbitu?» Eta Jesusek: «Zuk ez dakizu orain, Ni egiten ari naizena; geroago ulertuko duzu».

Pedrok: «Zuk ez didazu niri behinere oinik garbituko». Eta Jesusek: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu zerikusirik Nirekin».

Simon Pedrok orduan: «Jauna, ez oinak bakarrik, baita eskuak eta bur

erantzun zion: «Garbitua hartu duenak, ez du oinak besterik garbitu beharrik, erabat garbi baitago. Zuek ere garbi zaudete, baina ez guztiok». Bai baitzekien nork salduko zuen, horregatik esan zuen: «Ez zaudete garbi guztiok».

Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa hartu eta, berriro mahaian eseririk, esan zien: «Ba al dakizue zer egin dizuedan ? Zuek Maisu eta Jaun esaten didazue, eta ongi esana, hala naiz eta. Maisu eta Jaun izanik, oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue; jarraibide eman dizuet, Nik zuei egin dizuedana, zuek ere egin dezazuen».

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna,
zintzo hurbil gaitezela sakramentu honetara,
gure erospena egiten baita
opari hau oroigarri ospatzen dugun bakoitzean.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
hemen ospatu dugun zure Semearen Afarian berriztatu gaituzu;
egizu, egunen batez,
Haren erreinuko mahaian ase gaitezela.
Errege bizi baita.

JAUNAREN NEKALDIKO OSTIRAL SANTUA (B)

Otoitza

Jainko Jauna, Jesu Kristo zure Semeak,
bere odola gugatik isuriz sortu zuen Pazko misterioa;
gogoan izan zure bihotz ona
eta agertu zeure errukia;
santu egizkizu zeure seme-alabak eta zaindu beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

I. HITZAREN LITURGIA

I. IRAKURGAIA: Is 52, 13–53, 12

Gure nekeak hartu zituen.

Isaias Profetaren liburutik

*Hara, nire zerbitzaria aurrera aterako da;
haundia egingo da eta goratua izango.*

Asko hartaz ikaraturik gelditu baziren ere
—hartaraino baitzuen giza-itxura galdu,
eta gizona zenik ere ez baitzuen irudi—,
gero harriturik geldituko dira herri asko,
eta erregeak haren aurrean
hitzik gabe geldituko dira,
egundaino esan ez zena ikustean,
eta entzun ez zena begiratzean.
Nork sinetsi du guk esandakoa?
Nori agertu zaio Jaunaren besoa?
Kimua bezala hazi zen haren aurrean;
zuztarra lur lehorrean bezala,
ederrik eta giza-antzik gabe ikusi genuen
eta itxura atseginik gabe,
barregarri eta gizonetan azkeneko,
oinazegizon egina, nekeen berri dakiena,
ezikusi egiten zaienetakoa;
gaitzetsia eta baztertua.
Gure nekeak hartu zituen hark
eta gure minak eraman.
Lepradun bezala geneukan,
Jaungoikoak joa eta lotsarazia.
Gure bekatuengatik aldehenik-alde zulatua;
gure gaiztakeriengatik txikitua.

Haren gainera erori zen,
guri bakea ematen digun zigorra;
Haren zauriek sendatu gaituzte.

Gu denok, ardi galduak ginen,
bakoitza bere bidetik;
eta Jaunak haren gainean ezarri zituen
gu guztion txarkeriak.
Gaizki zerabilten,
baina bera makurtu egin zen;
eta ez zuen ahorik ireki.
Harategira daramaten arkumea bezala,
ilemoztaileen aurrean ardia bezala,
isilik egon zen, ahorik ireki gabe.

Zuzen gabeko auzitan galdu zuten.
Nork hartu zuen aintzakotzat haren etorkizuna?
Bizidunen lurretik kendu egin zuten;
nire herriaren bekatuengatik hil zuten.
Gaizkileen artean lur eman zioten,
eta bekatariekin haren hilobia;
nahiz eta berak bidegabekeriarik ez egin,
eta haren ahotik gezurrik ez jalki.

Jaunak nekeetan
lehertu nahi izan zuen.
Bere bizia ordain ematen badu,
izango du ondorengo ugari,
luzatuko zaizkio egunak,
beteko da Jaunaren nahia haren bitartez.

Bere oinazeen sari,
ikusiko du argia eta aseko da.
Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak
zuzentasuna emango dio askori,
haien hutsegiteak bere gain hartuz.

Horregatik jendetzak emango dizkiot Nik bere parte,
gizataldeak izango ditu harrapakin;
heriotzara eman baitzuen bere burua,
eta bekataritzat hartu baitzuten.
Bere gain hartu zituen askoren hutsegiteak,
eta bitarteko izan zen bekatarientzat.

ERANTZUN SALMOA: Sal 30, 2 eta 6. 12-13. 15-16. 17 eta 25

R/. Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!

Zugana biltzen naiz, Jauna,
ez nadila behinere lotsa:

zeure zuzentasunez onik nazazu atera.
Zure eskuetan uzten dut neure arnasa,
askatuko nauzu, Jauna, Jainko leiala. R/.

Etsai guztiei barregarri natzaie,
auzoei irrigarri, ezagunei izugarri:
kalean ikusi eta alde dagite nigandik.
Hildakoa bezala naute bihotzean ahaztu,
ontzi baztertua bezala naiz gertatu. R/.

Nik, ordea, Jauna, uste on Zugan dut,
«Zu zara nire Jainko», diotsut.
Zure eskuan nire joan-etorria,
atera nazazu etsaien eskutik,
aurrean narabiltenengandik. R/.

Aurpegi argia erakutsi morroi honi,
salba nazazu zeure errukiz.
Bizkor zaitezte, izan bihotz,
Jaunagan uste on duzuen guztiok. R/.

II. IRAKURGAIA: Heb 4, 14-16; 5, 7-9

*Esaneko izaten ikasi zuen,
eta Haren esaneko direnentzat betiko salbamen iturri egin zen.*

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Jesus, Jaungoikoaren Semea, dugu zeruetan sartu zen apaiz nagusi haundia; eutsi dezaiozun, beraz, sinesmen aitormenari; gure apaiz nagusia ez baita gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait; baizik eta gure antzera gauza guztietan aztertua, baina bekatutik garbi. Goazen, beraz, uste osoz, graziaren aulkira; errukia iritsi eta behar orduko laguntza emango digun mesedea aurki dezagun.

Kristok, haragizko bere bizitzaldian, heriotzatik gorde zezakeenari, deiadar haundiz eta negarrez, otoitzak eta eskariak egin zizkion; eta bere begiruneagatik entzun egin zitzaion. Eta Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten; eta bere betera iritsirik, Haren esaneko direnentzat betiko salbamen iturri egin zen.

EBANJELIOA: Jn 18, 1-19, 42

Ebanjelio aurreko txatala: Ik. Flp 2, 8-9

V/. Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion.

Laburdurak, elkarriketa moduan irakurri nahi denerako jartzen dira: + = Jesus; C = «Cronista» deritzana; S = «Sinagoga» eta beste elkarriketa lagunak.

Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia
San Joanen liburutik

Getsemanin, Jesus hartu eta lotzen dute.

C Aldi hartan, Jesus Zedrongo erreka bestea aldera atera zen bere ikasleekin. Bazen han baratze bat, eta hantxe sartu ziren Bera eta bere ikasleak. Judas saltzaileak ere bazekien leku hura; maiz joaten baitzen hara Jesus bere ikasleekin.

Judas, orduan, apaiz nagusien eta farisearren morroi talde bat eta zaintzaile batzuk harturik, han sartu zen argiontzi, zuzi eta armekin. Jesusek —ondo baitzekien zer zetorkion gainera— bidera atera eta esan zien:

+ «Noren bila zatozte?»

C Eta haiek:

S «Nazareteko Jesusen bila».

C Eta Jesusek haiei:

+ «Ni naiz».

C Han zetorren, haiekin batean, Judas saltzailea ere. «Ni naiz» esan zienean, atzeraka-atzeraka lurrera erori ziren. Jesusek galdetu zien berriz ere:

+ «Noren bila zatozte?»

C Eta haiek:

S «Nazareteko Jesusen bila».

C Jesusek erantzun zien:

+ «Esan dizuet Ni naizela. Nire bila bazatozte, utziezue hauei joaten».

C Horrela bete zen Berak esandakoa: «Zuk nire ardurapean utzi zenizkidanetatik, ez dut inor galdu».

Orduan Simon Pedrok, zeraman ezpata atera, eta apaiz nagusiaren morroia jo zuen, eta eskuineko belarria moztu zion. Morroi honek Malko zuen izena. Jesusek orduan esan zion Pedrori:

+ «Sar ezazu ezpata bere zorroan. Ez al dut, bada, edan behar, Aitak eman didan kaliza?»

Jesus Anasenera eraman zuten lehenengo.

C Gudari taldeak, haien agintariak eta judutarren morroiek hartu zuten Jesus eta, loturik, Anasenera eraman zuten lehenengo; Anas hori Kaifasen aitaginarreba baitzen, eta Kaifas bera urte hartako apaiz nagusia; eta Kaifas zen, gainera, judutarrei harako kontseju hura eman ziena: «Hobe da gizon bakarra hiltzea herriarengatik».

Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik zihoazen. Beste ikasle hori apaiz nagusiaren ezaguna zen, eta Jesusekin batean apaiz nagusiaren jauregian sartu zen; Pedro, berriz, atarian gelditu zen. Atera zen beste ikasle hori —apaiz nagusiaren ezaguna, alegia—, hitzegin zion, neskame atezainari, eta Pedro barrura sar erazi zuen. Neskame atezainak orduan esan zion Pedrori:

S «Zu ere ez ote zara, gero, gizon horren ikasle?»

C Eta Pedrok:

S «Ez! Ni ez!»

C Morroiak eta zerbitzariak sua piztu eta berotzen zeuden —hotz baitzen—. Pedro ere hantxe zegoen besteekin batean zutik, berotzen. Apaiz nagusiak, bere ikasleen eta bere erakutsien galdera egin zion Jesusi. Eta Jesusek erantzun:

+ «Nik mundu guztiaren aurrean hitzegin dut; sinagogan eta jauretxean, judutar guztiak biltzen diren lekuan erakutsi dut Nik beti; eta ezkutuka ez dut ezer esan. Zergatik galdetzen didazu Niri? Galde iezaiezu nire entzuleei, zer esan diedan. Berek dakite Nik esandakoa».

C Hori esan bezain laster, han zegoen morroi batek masaileko bat em:

S «Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiari?»

C Eta Jesusek:

+ «Gaizki hitzegin badut, esadazu zertan; baina ongi hitzegin badut, zergatik jotzen nauzu?»

C Orduan Anasek Kaifas apaiz naguziarengana bidali zuen Jesus lotuta.

Zu ere ez al zara Horren ikasleetakoa? Ez! Ni ez!

Han zegoen zutik Simon Pedro berotzen, eta esan zioten:

S «Zu ere ez al zara Horren ikasleetakoa?»

C Pedrok ukatu egin zuen, esanez:

S «Ez! Ni ez!»

C Apaiz nagusiaren zerbitzari batek –Pedrok belarria moztu zionaren ahaide batek– esan zion:

S «Ez ote zaitut, bada, neuk ikusi Berarekin baratzean?»

C Pedrok berriz ere ukatu egin zuen; eta berehala jo zuen oilarrak.

Nire erregetza ez da mundu honetakoa.

Kaifasen etxetik auzitegira eraman zuten Jesus. Eguna argitzen hasi zuen, eta haiek ez ziren auzitegian sartu, beren buruak ez kutsatzeagatik, Pazko afaria egin ahal izan zezaten. Atera zen Pilato haiek zeuden lekuraino, eta esan zien:

S «Zer salakuntza dakartzue gizon honentzat?»

C Eta haiek:

S «Gaizkile ez balitz, ez genizuke ekarriko».

C Eta Pilatok:

S «Eramazue zeuekin, eta epaitu zeuen Legez».

C Judutarrek orduan:

S «Guk ez dugu inor hiltzeko eskubiderik».

C Horrela bete zen, Jesusek alde zaureratik esandakoa, nolako heriotzaz hilko zen, alegia. Sartu zen berriz Pilato auzitegira, deitu zion Jesusi eta esan zion:

S «Zu judutarren errege al zara?»

C Jesusek erantzun:

+ «Zeure buruz galdetzen al didazu hori, ala besteren batek esan dizu Niretzat?»

C Pilatok:

S «Judutarra ote naiz, bada, ni? Zure herritarrek eta apaiz nagusiek ekarri zaituzte niregana; zer egin duzu?»

C Jesusek orduan:

+ «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Mundu honetakoa balitz nire erregetza, nire zaintzaileek gogor egingo lukete, Ni judutarren esku gelditu ez nendin. Nire erregetza, ordea, ez da hemengoa».

C Pilatok:

+ «Errege zara, beraz?»

C Jesusek erantzun zion:

+ «Zeuk diozu: errege naiz. Horretarako jaioa naiz, eta horretarako etorria mundura: egiari aitormen egiteko. Egiarena denak entzuten du nire hitza».

C Pilatok orduan:

S «Zer da egia?»

C Hori esanda, berriz ere judutarrengana atera eta esan zien:

S «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina ohitura da zuen artean Pazkoan gaizkile bat askatzea: Nahi al duzue judutarren erregea askatzea?»

C Haiek, berriz, deiadarka:

S «Ez Hori; Barrabas baizik».

C (Barrabas hau lapurra zen)

Agur, judutarren errege!

Pilatok orduan, Jesus hartu, eta zigortzeko agindu zuen. Eta gudariek arantzazko koroa egin, eta buruan ezarri zioten; eta sorbalda gainean purpurazko soingainekoa jantzi eta, erdian harturik, honela esaten zioten:

S «Agur, judutarren errege!»

C Eta masailekoka zerabilten. Atera zen Pilato berriz, eta esan zien judutarrei:

S «Hemen dakarkizuet berriz ere gizon hau, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen».

C Atera zen, bada, Jesus, buruan arantzazko koroa eta sorbaldan purpurazko soingainekoa zuela. Eta Pilatok esan zien:

S «Hemen duzue gizona».

C Apaiz nagusiak eta gudamutilak, Hura ikustean, deiadarka hasi ziren:

S «Josi Hori! Josi gurutzean!»

C Pilatok, ordea:

S «Hartzazue, eta josi zeuek gurutzean; nik ez diot errurik aurkitzen».

C Judutarrek, orduan:

S «Guk badugu Legea; eta gure Legez heriotza merezi du, Jaungoikoaren Seme egin baitu bere burua».

C Pilato, hitz horiek entzutean, gehiago beldurtu zen eta, berriz ere auzitegira sarturik, honela mintzatu zitzaion Jesusi:

S «Nongoa zara Zu?»

C Baina Jesusek ez zion erantzun. Pilatok orduan:

S «Ez al didazu ezer erantzun nahi? Ez al dakizu, badudala nik eskubide Zu askatzeko, eta eskubide Zu gurutzean josteko?»

C Jesusek orduan:

+ «Ez zenuke nire gain horrelako eskubiderik izango, goitik eman ez balitzaizu. Horregatik, Ni zure esku utzi nauenak, erru haundiagoa du».

Ken Hori, ken! Josi gurutzean!

C Handik aurrera, Jesus askatu nahian zebilen Pilato. Baina judutarrak deiadarka hasi zitzaizkion:

S «Hau askatzen baduzu, ez zara Zesarren adiskide. Bere burua errege egiten duena, Zesarren aurka dago».

C Pilatok, hitz horiek entzutean, atera zuen Jesus berriz ere, eta auziaulkian eser erazi zuen, «Harrisolairu» deitzen zioten lekuan —heberkeraz, berriz, Gabbata—. Pazkoaren Prestaera Eguna zen, eguerdi inguru. Eta Pilatok esan zien judutarrei:

S «Horra zuen erregea».

C Haiek deiadarka erantzun zioten:

S «Ken Hori, ken! Josi gurutzean!»

C Eta Pilatok:

S «Zuen erregea gurutzean josi behar al dut?»

C Apaiz nagusiek orduan:

S «Guk ez dugu Zesar beste erregerik».

C Orduan haien esku utzi zuen Jesus, gurutzean josi zezaten.

Gurutzean josi zuten, eta Harekin batean beste bi.

Hartu zuten Jesus, eta Hura, gurutzea sorbaldan zeramala, «Buruhezurtegi» –heberkeraz, berriz, Golgota– izeneko lekura atera zen. Han josi zuten gurutzean; eta Harekin batean beste bi: bata alde batetik, eta bestea bestetik, eta erdian Jesus. Gurutze buruan idazkun bat ipintzeko agindu zuen Pilatok; honela zioen idazkiak: JESUS NAZARETARRA, JUDUTARREN ERREGEA.

Judutar askok irakurri zuen idazkuna, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutzean jositako lekua, eta idazkuna hiru hizkuntzatan idatzi baitzuten: heberkeraz, latinez eta grekoz. Judutarren apaiz nagusiek, orduan, honela esan zioten Pilatori:

S «Ez ipini "Judutarren erregea", baizik eta "Honek esan du: Judutarren erregea naiz"».

C Baina Pilatok:

S «Idatzi dut, eta idatzirik dago».

Nire jantziak berentzat banatu zituzten.

C Gudariak, Jesus gurutzean josi zutenean, Haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, gudari bakoitzarentzat zati bana; soinekoa, berriz, utzi egin zuten. Joskurarik gabea zen soinekoa, goitik behera erabat ehoa. Eta elkarri esan zioten:

S «Ez dezagun zatitu; baizik eta txotx egin dezagun, nori ateratzen zaion».

C Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak berentzat banatu zituzten, eta nire soinekoa txotx egin zuten». Hori egin zuten gudariak.

Horra hor zeure semea. Horra hor zeure ama!

Jesusen gurutzearen oinean zeuden: bere ama, amaren ahizpa –Kleofasen Maria– eta Maria Magdalena. Jesusek bere ama ikustean eta, han bertan, Berak hain maite zuen ikaslea, honela esan zion amari:

+ «Andrea, horra hor zeure semea!»

C Eta gero ikasleari:

+ «Horra hor zeure ama!»

C Eta orduz gero, ikasleak bere etxean eduki zuen Maria.

Bete da dena.

Gero Jesusek, dena bete zela ezaguturik, Liburu Santua bete zedin, esan zuen:

+ «Egarri naiz».

C Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Eta ozpinetan bustitako belaki bat kainabera muturrean loturik, ezpainetara eman zioten. Ozpina hartu ondoren, esan zuen Jesusek:

+ «Bete da dena».

C Eta, burua makurturik, azken arnasa eman zuen.

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egiten da.

Odola eta ura atera ziren.

Judutarrek orduan, Prestaera Eguna zelako, gorpuak larunbatez gurutzean gelditu ez zitezen –larunbata hura egun haundia baitzen–, berna hezurak hautsi, eta gorpuak handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Etorri ziren gudariak, eta Jesusekin batean gurutzean jositako lehenengoari eta besteari berna hezurak hautsi zizkieten; Jesusengana iritsi zirenean, ordea, hila zegoela ikusirik, ez zioten berna hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihesta zulatu zion, eta berehala odola eta ura atera ziren.

Ikusi zuenak berak aitortzen du hori, eta egiazkoa da haren aitormena

dioela, zuek ere sinets dezazuen. Guzti hori, Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen: «Ez diote hezurrik hautsiko». Beste leku batean, hau dio: «Ikusiko dute zulatu zutena».

*Jesusen gorpua, usain gozoz gantzuturik,
oihaletan lotu zuten.*

Gero, Arimateako Josek —bera ere Jesusen ikaslea baitzen, nahiz ezkutuka, judutarren beldurrez— Jesusen gorpua eramaten uzteko eskatu zion Pilatori; Pilatok eman zion baimena. Hark orduan, joan eta eraman egin zuen Jesusen gorpua. Etorri zen Nikodemo ere —lehenengo aldiz Jesus ikustera gauez joan zena— mirraz eta aloezko nahaste batetik ehun bat libra zekarrela. Hartu zuten, beraz, Jesusen gorpua eta, usaingozoz gantzuturik, dena oihaletan lotu zuten, judutarren ehortzi ohitura den bezala. Jesus gurutzean jositako lekuan, bazen baratze bat, eta baratzean ordurarte inor ehortzi gabeko hilobi berri bat. Eta judutarrentzat Prestaera Eguna zelako, eta hilobia hurbil zegoelako, han bertan ipini zuten Jesus.

Jainkoaren herriaren otoitza

I. Eliza santuaren alde

Egin dezagun otoitz, senide maiteok, Jainkoaren Eliza santuaren alde: gure Jaun eta Jainkoak bakea, batasuna eta laguntza eman diezazkiola mundu zabalean; guri, berriz, bizimodu baketsua, Jainko Aita ahalguztiduna gorestekoa.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Kristorengan herrialde guztiei agertu diezu zeure haunditasuna;
zaindu ezazu zeure errukiaren lana,
mundu guztian zabalduz dagoen zure Elizak
sinesmenean sendo iraun eta zure izena aitortu dezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

II. Aita Santuaren alde

Egin dezagun otoitz I. gure Aita Santuaren alde: gotzain mailara deitu duen Jainkoak sendo gorde dezala bere Eliza santuaren onerako, Jainkoaren herri santua zuzen gida dezan.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Zuk darabiltzazu diren guztiak;
onartu gure otoitzak
eta maitasunez gorde ezazu Aita Santua,
Zuk zuzentzen duzun kristau herriak,
artzain honen ardurapean,
aurrera egin dezan bere sinesmenean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

III. Edozein mailatako eliz zerbitzari eta kristau guztien alde

Egin dezagun otoitz I. gure Gotzainaren alde, beste gotzain, apaiz, diakono eta eliz zerbitzari guztien alde, baita fededun guztien alde ere.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Espirituaz santu egiten duzu eta erabiltzen
Elizaren gorputz osoa;
entzun eliz zerbitzari guztien alde egiten dizkizugun otoitzak,
zure graziari esker, bakoitza bere eginkizun berezian
zure zerbitzari zintzo izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

IV. Kristaugaien alde

Egin dezagun otoitz [gure] kristaugaien alde: Jainko gure Jaunak berauen gogo-bihotzak ireki eta bere errukiaren ateak zabal diezazkien, hauek ere, Bataioko uren bidez bekatu guztien barkamena harturik, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputzeko izan daitezen.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
seme-alaba berriz ugaritzen duzu beti zeure Eliza;
sendo ezazu [gure] kristaugaien sinesmena eta jakinduria,
Bataio iturrian berriro jaiota
zure semetzakoen artean sar daitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

V. Kristauen batasunaren alde

Egin dezagun otoitz, Kristorengan sinesten duten senide guztien alde: egiari jarrai diezaioten beren bizitzan eta gure Jaun eta Jaungoikoak bere Eliza bakarrean bildu eta zaindu ditzan.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure seme-alaba sakabanatuak bildu egiten dituzu,
eta bildutakoak zaindu;
begira bihotz onez zeure Semearen artaldeko ardiei,
Bataio berak santu egin dituenak
egiazko sinesmenak eta maitasunaren lokarriak
bat egin ditzan zure Eliza bakarrean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

VI. Judutarren alde

Egin dezagun otoitz judutarren alde, Jainko gure Jaunak profeten bidez lehenengo hitzegin zion herriaren alde: aurrera egin dezaten beti Haren izen santuaren maitasunean eta Harekiko elkargoa zintzo gordetzen.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Abrahami eta haren ondorengoei
eman zenizkien zeure agintzariak;
entzun errukiz zure Elizaren eskariak,
behinola zure herri aukeratua izan zena
erospen osora irits dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

VII. Kristorengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz, Kristorengan sinesten ez dutenen alde: Espiritu Santuaren argiaz beterik, hauek ere salbamen bidean sar daitezen.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
emaiezu Kristorengan sinesten ez dutenei,
zure aurrean bihotz leialez eta zintzo biziz,
egia osoa ezagutzera iristea;
guri, berriz, emaguzu elkar hobeto maitatzea,
eta Zu sakonago ezagutzen ahalegintzea,
zure maitasunaren aitorle hobeak izan gaitezen munduan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

VIII. Jainkoarengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz, Jainkoarengan sinesten ez dutenen alde: beren kontzientziari jarraituz Jainkoarengana irits daitezen.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Zuk egin dituzu gizon-emakume guztiak,
beti zeure bila ibil daitezen
eta, Zu aurkiturik, Zeuregan atsedean izan dezaten;
egizu, mundu honetako neke eta estualdietan,
denek ikus ditzatela zure bihotz onaren ezaugarriak
eta zure sinestedunen testigantza,
horrela pozik aitor dezaten
Zu zarela egiazko Jainko bakarra
eta gizon-emakume guztien Aita.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

R/. Amen.

IX. Herri agintarien alde

Egin dezagun otoitz, herri guztietako agintarien alde: gure Jaun eta Jainkoak guztien gogo-bihotzak bere nahiaren erara erabil ditzan, denen bake eta askatasunerako.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure eskuetan dauzkazu gizon-emakumeen bihotzak
eta herrien eskubideak;
begira begi onez herrietako agintariei,
Zuk emanik, mundu guztian izan daitezen
bakea, aurrerapena eta erlijio askatasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

X. Atsekabetuen alde

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko Aita ahalguztidunari: garbi dezala mundua oker guztietatik, senda ditzala gaixoak, ogia eman diezaiera gose direnei, aska ditzala espetxeratuak, kateak hautsi, erbesteratuak herriratu, bidez dabiltzanak etxeratu eta hiltzorian daudenak salba ditzala.

Otoitz isilik. Gero apaizak:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
atsekabetuen poza, nekatuen indarra,
irits bitez Zuregana
edozein estualditan Zuri deiez daudenen eskariak,
beren beharretan
zure errukiaren laguntza aurki dezaten.
Jesu Kristo gure Janaren bitartez.
R/. Amen.

II. GURUTZE SANTUA GURTZEA

Gurutze santua aurkeztea

V/. Hona hemen gurutze habea,
munduaren osasuna zintzilik eduki zuena!
R/. **Zatozte, gurtu dezagun!**

Gurutze santua gurtzea

III. JAUNARTZE SANTUA

Gure Aita

Salbatzaileak agindu eta erakutsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

**Gure Aita, zeruetan zarena,
santu izan bedi zeure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia,
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur egun honetako ogia,
barkatu gure zorrak,
guk ere gure zordunei
barkatzen diegunez gero,
eta ez gu tentaldira eraman,
baina atera gaitzazu gaitzetik.**

Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik,
emaguzu bakea gure egunotan,
zure errukiari esker,
bekatutik garbi bizi gaitezen
eta estualdietan sendo,
betiko zorionaren itxaropenean,
Jesu Kristo gure Salbatzailea
noiz etorriko den zain gaudela.

**Zeurea duzu erregetza,
zeureak ospe eta indarra
orain eta beti.**

Jesu Kristo gure Jauna,
zure gorputz-odolak hartzea izan bedi,
zure bihotz onari esker,
nire gorputz-arimen babes eta salbamenerako,
eta ez nire auzi eta kaltetarako.

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

**Jauna, ni ez naiz inor
Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat,
eta sendatuko naiz.**

Jaunartze ondorengoa

Egin dezagun otoitz.
Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure Seme Jesu Kristoren heriotza eta piztueraz
berritu gaituzu;

zaindu ezazu gugan zeure errukiaren lana,
misterio honetan parte harturik,
beti zure zerbitzari izan gaitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

Herriaren gaineko otoitza

Jauna, zure Semearen heriotza ospatu dugu
eta Beraren piztuera santuaren zain gaude;
bidaliezaguzu zure bedeinkapen ugaria,
etor bekigu zure barkamena,
emaguzu zeure poza,
sendotu gure sinesmena
eta eraman gaitzazu betiko salbamenera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.